

Komunikabiderik egokiena aukeratu ahal izateko, abiapuntua, gure bezeroen izaera ezagutzean datza. Patinete elektriko bat nahiko duten bezeroen gehiengo handi batek aurretik internet eta gailu elektronikoan ezagutza eta hauekiko gertutasun bat izango duela uste dugu, beraz, interneta da bide egokiena. Ondorioz, kanalen artean, hauek bereiz ditzakegu:

- Komunikazio-kanalak → Gure informazioa transmitituko duten euskarriak dira; internet, telefonoko aplikazioetako iragarkiak, posta elektronikoa, sms-ak ... komunikazio kanal ugari aurreikusten ditugu gure bezeroengana iristeko.
- Banaketa-kanalak → Gure produktuak kontsumitzaileari ezagutarazteko aukeratu ditugun bitartekoak dira, ahalik eta errentagarriena eta ahalik eta eraginkorrena dela ziurtatuz. Hauek dira aukeratu ditugun banaketa kanalak: aplikazio interaktiboak, sare sozial guztiak, webguneetako promozioak eta publizitatea eta youtube eta beste streaming bidezko plataformetako anuntzioak...
- Salmenta-kanalak → Gure salmenta-kanala enpresaren webgunea izango da.

Horretaz gain posta bidez egingo dugu patineteen banaketa, garraio enpresa baten bitartez.